



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xendazaletasun atala
124. zka 4. etapa GR-283	Otzaurte-Lizarrusti 2017-11-11/12

Xendazale adiskideok:

Aurtengoz, “Idiazabalgo Gazta” ibilbidearen laugarren eta azken etapa. Ibilaldia mendatetik mendatera. Otzaurtetik Etxegaratera eta gero Lizarrustira. Ibilbide hau partekatzen dute GR-12k eta GR-121ek. Bentaren atzetik Aitzabal mendi koskorerrako bidea hartuko dugu, gero Gazbidera eta ondoren Etxegarateko mendate ezagunera jaitsiko gara.

N-1 zeharkatuko dugu horretarako dagoen igarobidetik edo libre, eta bigarren zatian sartuko gara. Igoera Balankalekuko eremuetara (985m). Han gidari leiala izango dugun lerro banatzailea hartuko dugu, pagadi ikusgarri bat zeharkatzen dugun bitartean. Larreluzeko Trikuharriarekin topo egingo dugu, Muñan mendiarren eremuetan (911m). Gero, Sartzamendiko Mikeleteen aspalduko etxearen hondakinak, Auntzeta aldera iritsi eta han bat-batean ezkerretara hartuko dugu, geroago Igartza gailurrera igotzeko (882m).

Puska batean ur-banatzailearekin dantzatu ondoren, Bernoako Galtzada ospetsura iritsiko gara, dagokion trikuharriarekin. Berraona edo Bernoako erromatar galtzada XIX. mendera arte erabili izan zen. Bernoako galtzadaren, Urbasa Pasaia Donibanerekin elkartzen omen zuen mandabidearen, zenbait zati Sakanako lau herritan lan egin duen nazioarteko boluntario-talde bati esker irten dira argitara. Mendiaren eta itsasoaren arteko merkataritza-ibilbidea da, hortik merkataria eta mandazainak ibili zirelarik mendez mende.

Orobat, kontatzen da Ataungo gazteek ere erabiltzen zutela Burundara, Altsasuko jaietara joateko. Bere urratsei jarraituko diegu. Etengabe gora eta behera egiten du, baina desnibel handiak ez dira eta bai ibiltzeko erosoa. Orain Intxusburuko gailurrera hurbilduko gara (943m). “Ehunka urteko” gailur hau Etxegaraten hasi eta Lizarrustin amaitzen den gailur-lerroaren erdian dago. Gipuzkoa eta Nafarroa artean dago, trikuharri bat gainean duela. Eta gero Irumugeta edo Irumugarrietara (965m) iritsiko gara, bere mugari ezagunarekin. Azken zatian gaude, Txaradigorri (994m) eskuinetara utzi eta Lizarrusti mendatera jaitsiko gara, han amaitzeko zeharkaldi eder hau. Euskal Herriko Zeharkaldi Handiko 12. etapa zela-eta 2010eko martxoaren 28 hartan egin genuen bezalaxe. Nola igaro den denbora !!!

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Otzaurte-Lizarrusti

Beharrezko denbora							5,25 ordu				
Goranzko desnibel metatua							1.012 metro				
Beheranzko desnibel metatua							1.107 metro				
Zeharretara egin beharreko distantzia							19.080 metro				
	Inguru a	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 Bus galekua) eta Pio XII.aren plaza (24/27 Bus galek.)
Aurkezteko ordua	07:25 (Bilbo plaza) eta 07:30 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:30 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2017-11-9ko 12:00etan

**Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.**

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña